

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Linea elektrikoak ez izozteko teknologia asmatu dute

NEGU GORRIAN, batez ere herrialderik hotzenetan, garraio elektriko-ko lineak izoztu egiten dira eta horrek, euren iraupena murrizteaz gain, arazoak sortzen ditu elektrizitate garraioan. Baina izotza linea elektrikoetan ez metatzeko sistema asmatu du AEBetako Ice Engineering LLCko eta Dartmouth College-ko ikerlari talde batek, Victor Petrenko buru.

Elektrizitatea garraiatzeko kableetan erresistentzia aldakorra ezartzea da asmakizunaren oinarria. Normalki, kableetan ahalik eta erre-sistentzia txikiena izatea komeni da; handia izanez gero, kablea bero-tu eta garraiatzen den energiaren zati bat bero moduan galtzen da.

Petrenko eta haren taldekideen arabera, asmatutako sistemare-kin izotza sortzen ez den bitartean kableak oso erresistentzia txikia du, beraz oso energia gutxi galtzen da. Izotza dagoen egu-netan berriz, sistema automa-tiko baten bidez kableen erre-sistentzia handitu egingo da, eta horrek energia gehiago galtzea eragingo du, bero moduan. Baina aldi berean, bero horrek kableak izoztea eragotziko du.

Saiakeraren lehen aplikazioa Errusiako Orenburg-eko linea elektrikoetan egingo da, baina horretarako egun dauden kableak aldatu beharko dira. Kontuan hartu behar da konpainia elektrikoek beren kableen %3 aldatzen dutela urtero. Beraz, sistema berria pix-kanaka ezarriko da, konpainien mantenu-lanen barnean.



Izar “urdin atzeratu”-en misterioak

GALAXIA GEHIENETAN AZALTZEN DIRA izar urdinxka potoloak. Inguruak desagertu dira, baina beraiek ez, nola liteke? Orain arte bi izan dira hori azaltzeko bideak: izarrek elkarrekin talka eginez desagertu dira eta gelditu denak, nolabait esateko, “zorte ona” izan du, edo bi izar “ados jarri” dira bata besteari masa emateko. Erre-suma Batuko McMaster Unibertsitateko Alison Sills-ek eta Sout-hampton-go Unibertsitateko Christian Knigge-k frogatu dute 50 galaxia baino gehiagotan topatutako “urdin atzeratu” kopurua ezin dela izan talken ondorioa. Beraz, eta daukagun beste teoriaren ara-bera, izarrek masa ematen diote elkarri, baina nola? Oraingoz eran-tzunik gabeko galdera dugu hori.

50 gramoko txoriek 500 kilometrotik gora eguneko

Brasil eta AEBen artean urtero migratzen duten hainbat txori-ren ibilbidea neurtzea lortu dute ikerlariak, hanketan 1,5 gramoko geokokatzailea ipiniz. Datuek, harridura sortzeaz gain, txori populazioen gorabe-herak ulertzeko balio dezakete. <http://ttiki.com/2303>

Marteko haizeak harriak higiarazten ditu

Gero eta argazki gehiago aile-gatzen zaigu Martetik, eta gauza harrigarri bat beha daite-ke horietan: gaurko argazkian harria hemen dago, eta bihara-munekoan han. Jakina da Mar-ten haize bortitzak daudela, baina harriak higitzeko adina-koak al dira?

www.amazings.com/ciencia/noticias/110209a.html

Robotak hondarrean, ez aurrera ez atzera

Martera garamatza berri honek ere. Planeta gorria bezalakoetan arrisku handia dago robotak, hondarra edo harri xeheko lurra topatzean, bertan gelditzeko, autoak lokatzetan bezala. Ikerla-riak saiatzen ari dira roboten abiaduraren eta planeten dentsi-tatearen artean erlazio zuzenak topatzen, dentsitatea txikitzean abiadura ere txikitu dadin. <http://ttiki.com/2304>

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza 
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16